



## ❖ HITZALDIA

### Gozatu eta umore onari eusteari buruzko hitzaldia

Hitzaldia dago gaur Goiz Eguzki jubilatutako etxean, arratsaldeko 17:00etan, gozatzeari eta umore onari eusteari buruz. ||

## Gai sozialak lantzen dituen Andui Fundazioa Agustindarren plazan dago, herritarren zerbitzura

HERRITARREI beren zerbitzuaren eta azkena antolatutako topaketan berri eman nahi die Andui fundazio berriak, eta atzo prentsaurrean azaldu zituzten xehetasun guzti hauek. Fundazioa sortu da gai sozialen inguruko lanketa "prestakuntza haundiagokoa eta profesionalagoa" egiteko. Landuko duten gaitako bat drogomenpekotasunena izango da, baina horrez gain, aisialdia, sexologia, psikologia, inmigrazioa, emakumea... beste hainbat gaitan ere zerbitzua emango du Anduik.

### Zerbitzu zabala

Fundazioak eskaintzen dituen zerbitzuak asko dira, besteak beste:

**Psikoterapia eta famili laguntza:** Familia desegiten duten arazoan aurrean terapiak eta laguntza profesionala, beregituratzen laguntzeko. Anduik familia estruktura berregiten lagunduko du eta tarterko arazoak konpontzeko profesionalek bideratu (drogak, anorexiak...).

**Dokumentazio Zentroa:** Gai guzti hauen inguruko dokumentazio zentro bat ari da sortzen Andui, eta interesatu guztien eskura egongo da, beren bulegoan.

**Formazio ikastaroak:** Profesionalentzako, guraso, ikasle, irakasle nahiz interesatuentzako formazio ikastaroak antolatzen ditu Anduik, orain arte Biterin eta hemendik aurrera lokal berrian, Agustindarren plazan.

**Ikerketak:** Zenbait ikerketa egiteko helburua ere badu fundazio berriak. Egun, egunkaritan drogaren gaia nola lantzen den ari da aztertzen, Jaurlearitzak lagunduta.

**Drogomenpekotasunak prebenitzako planak:** Orio,



Txus Congil Fundazio kidea, eta Mirian Mendiola eta Aiora Perez de San Roman Anduin lanean ari diren bi kide, atzo aurkezpenean.

Oiartzun, Astigarraga eta Berako ikastetxeetan ari dira. Horrez gain, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Ibilaldia eta Araba euskaraz ere sentsibilizazioan oinarritutako plan bat egiten ari dira. Ikastolen elkarrekin batean.

**Drogak eta sexualitatea, informazio puntua:** Teknologia berriak baliatuz sare zabala eratu nahi da drogak eta sexualitateari buruzko informazio puntu bat sortzeko.

Erdigunea Hernanin izango luke baina zerbitzua zabala da. Oraingoan, Gazte Txokoa daukate esperientzia pilotoa.

### Lan profesionala

Fundazioa sortzearen arazoietako bat da gizarteak horrelako gaitan eskatzen duena ere aldatu egin dela: "Askagintzak-eta hasiera batean lan batzuk egiten zuten, baina eskaera asko aldatu da, zerbitzu profesionalagoa

eskatzen da orain. Andui fundazioak aukera ematen du lana profesionalizatzeko". Fundazioak lokala hartu berri du Agustindarren Plaza 6an, lehen pisuan. Diru iturriak berriz argi azaldu ditu Txus Congil fundazio kideak: "gu ez gara diru laguntzetatik bizi. Fundazioko bazkideek jarritako dirua erabiltzen dugu batetik eta egindako lanagatik kobratzen duguna". ||

## Jose Antonio Gabelasek 'pantaila artean hazteari' buruzko ikastaroa emango du

ANDUIK lantzen duen alorretako bat trebakuntza ikastaroa da eta martxoaren 23 eta 24an Jose Antonio Gabelasek emango du pantaila artean hazteari buruzko ikastaroa, Anduiko lokalean, Agustindarren plazan. Gaur eguneko gazteak pantaila artean bizi dira eta horko leihoak, kodigoak, edukiak eta eraginak ezagutzen lagunduko du Zaragozako eta Kataluniako unibertsitatean multimedia eta komunikaziorako irakasle-aholkularia den Gabelasek. Ikastaroa

zuzendua dago irakasle, kale hezitzaile eta gazte zentrotako hezitzaileei eta baita interesa duen edonori ere. Izen emateko 943 33 60 80 zenbakira deitu edo [andui@andui.com](mailto:andui@andui.com) postara mezua bidali behar da. Prezioa 50 euro.

Beste bi ikastaro ere antolatu dituzte dagoeneko: apirilaren 27 eta 28an M<sup>a</sup> Jesus Urangak emango du Nerabezeroari buruz; eta maiatzaren 25 eta 26an Osasun Heziketa Ikastetxeetan, Askagintzako kideek. ||

### Esklerosia hizpide gaur Biterin

Esklerosiari buruzko hitzaldia izango da gaur, goizeko 11:00etan Biterin, Inmaculada ikastetxeak antolatuta. ADEMGi elkarterko kideek hitz egingo dute, Gipuzkoan 600 lagunek duten gaitz honi buruz. ||

### Emozioek duten garrantziari buruzko hitzaldia

Juana Mari Maganto pedagogoa *Emozio baikorrak garatu* hitzaldia emango du, Hernani Institutuaren eskutik. Emozioak eskolan eta familian nola hezi azalduko du. Gaur arratsaldeko 18:30etan Biterin. ||

## ❖ ASTIGARRAGA

### 'Euskaldun berri lan berri' monologia gaur, Korrika kulturalaren barruan

Korrika badatorrela eta zenbait ekitaldi antolatu ditu Astigarragako AEKK Korrika kulturalaren barruan. Gaur, Peio Arnaezen *Euskaldun berri lan berri* monologia izango da kultur etxean, 20:00etan. Euskaldun berriak euskaldun zaharren artean nola sentitzen diren azaltzen du lan honek, eta hauen laguntza zein beharrezkoa den. Sarrera debalde izango da. ||

**ALTZUETA**  
TOLARE - SAGARDOTEGIA

[www.altzuetasagardotegia.com](http://www.altzuetasagardotegia.com)

Osiñaga auzoa 7 - Hernani  
943 55 15 02

*Asteartetik larunbatera irekita*

**KRANKA**

Jantzi denda berria

Ostegunean,  
martxoaren 15ean  
IREKIKO DUGU

Gudarien Plaza, 13  
Tel.: 943 557 149

**LARRE-GAIN**  
TOLARE SAGARDOTEGIA

943 55 58 46 - 616 28 78 67

- Asteartetik igande eguerdira zabalik  
- Larunbat eta igande eguerdiz zabalik  
- Ostiral eguerditan enkarguz

*zatoz sagardo berria edatera!*

EREÑOTZU - HERNANI

*Sagardo naturala urte osoan botiletan salgai.*

**TELEFONOAK** | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 333288 | DYA: 943 464622 | Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
**FARMAZIAK** | Egunez: Gomez Justel Kale Nagusia 14 - 943 554892 | Gauzez: Etxebeste Elcano 2 - 943 552087

**EGURALDIA**  
**GAUR** Asteartean eguraldia egonkor mantenduko da. Zeruan goihodei batzuek agertuko dira. Haize aldakorra ibiliko da.  
**BIHAR** Bihar ere, udaberriko giroa. Goizean goiz, hotza, eta lanbroa eta lainoa ager daitezke, barnealdeko bailaretan batez ere, baina berehala desagertuko dira. (euskalme)



## Hernaniarrak nagusi Elgoibarko Herria, taldekako instrumentu lehiaketan

Hernaniko hiru taldek hartu zuten parte asteburuan *Elgoibarko Herria* taldekako Vigarren instrumentu lehiaketan eta hirurek lehen saria eskuratu zuten: Leoka taldeak oinarrizkoa 1 mailan irabazi zuen; Txantxillak oinarrizkoa 2 mailan; eta Hernasaxek bertain mailan. Bakarlaririk onena ere Hernanikoa izendatu zuten gainera: Hernasax tal-

deko Itxaso Pacheco.

Parte hartutako ikasleak hauek dira: Leoka Taldea: Beñat Alvarez, Mikel Berrondo, Aitor Ugarte, Iker Mujika, Imanol Arozamena, Miren Aierbe, Naroa Jaka, Maddalen Otaegi, Oier Lujanbio eta Jon Ander Olazabal. **Txantxilla Taldea**: Eburne García, Itxaso Piquer, Janire Urrestarazu, Ion Pache, Aitor Ortiz, Leire Juanes eta Ander Zubillaga. **Hernasax Taldea**: Itxaso Pacheco, Bingen Elexigerra, Imanol García, Axel Tranche, Imanol Andrés, Miren Zubillaga eta Maddi Mitxelena. ||

## Udalak hiru espediente ireki ditu kalean pixa egiteagatik

GIZALEGEZKO Jokabideari buruzko ordenantza duela bi hilabete jarri zen indarrean eta hiru zehaztapen-espediente jarri dituzte dagoeneko, kalean pixa egiteagatik. Andoni Amonarraiz Zerbitzu Publikoetako zinegotziak azpimarratu du "portaera hau eta hiri-altzariak haustea, pipa eta beste frutu lehoren azalak lurrera botatzea, edo paperak lurrera botatzen duen ordenantzaren bidez, hiritarren arteko elkarbizitza

erregulatu eta kaleetako erabilpena eta garbitasuna erregulatu" nahi direla. Zinegotziak gogoratu du ordenantzak erregulatu duela alfonbra, erratz eta gainerakoak astintzeko ordutegia: gaueko 21:00etatik goizeko 09:00etara dago baimendua.

### Soinu muga

Ordenantzak arautzen duen beste puntu bat soinuena da. 22:00etatik 08:00etara lanegunetan, eta 10:00ak arte jai

egunetan, ekidin litezkeen soinuak ateratzea galerazia dago etxe barruan, eta inolaz ere ezin da 30 dB baino altugoko soinuak atera. Horrez gain, Udaletik gogoratu dute 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea edo txotx garaiko ekitaldi jendetsuetan kristalezko ontziak ateratzea galerazia dagoela. Isunak arinak, larriak edo oso larriak izan litezke, 60 eurotik 3.000 eurorainokoak, larritasunaren arabera. ||

## ❖ MARIA MAGDALENA

### Sagardotegira gaur

Maria Magdalena Zaharren Egoitzakoak bazkaltzera sagardotegira dihoaz gaur, Elutxetara. Urtero egiten dute sagardotegia eta primerako giroa izaten dute. ||

## ❖ HITZALDIA

### 'Asiatik Euskadira 9 hilabete abiorik hartu gabe' hitzaldia bihar, Bidaiarien Txokoa

Bidaiarien Txokoak hitzaldia antolatu du biharko, arratsaldeko 19:30etan, Biterin. Asiatik Euskal Herrira egindako bidaiaren berri emango dute Andreu Rickard australiarak eta Eider Huertas donostiarak. Bederatzi herrialde pasa zituzten, abiorik hartu gabe: China, Mongolia, Rusia, Kazajstán, Kirgistan, Uzbekistán, Turkmenistán eta Irán. Bidaia aprobetxatuta, ingurugiro arazoei buruzko informazioa bildu zuten ONUrentzat liburu bat egiteko. Bidaiaren eta bildutako informazioaren berri emango dute bihar. ||

## ◆ ERRUGBIA

### Biarritzen partidurako sarrerak erreserbatu dituztenek gaur, bihar eta etzi ordaindu behar dituzte

Biarritz eta Northampton taldeek Heineken Cap txapelketako partidua jokatu dute Anoetan, apirilaren 1ean, arratsaldeko 14:00etan. Errugbi elkarteak txartelak saldu ditu urteroko moduan, eta erreserbatu dituztenek gaur, bihar edo etzi pasa behar dute Landaretik ordaintzera, 19:00etatik 21:00etara. ||

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Hernanin alokatzen dut gela bat pisu konpartitu batean. Deitu: 610 85 19 17

Opel Astra salgai. 8 urte ditu eta oso egoera onean dago. 3.000 euro. Interesatuak deitu: 943 33 16 00 - 699 614 995

Lokala alokatu nahi dugu, jubilaria dela eta. Eguzki parfumeria. Beste aktibitate bat jarri daiteke. Deitu: 943 55 13 33

Sukaldari baten bila gabilta, Hernaniko taberna batean lan egiteko. Informatzeko deitu: 647 751 623

Hernaniko taberna batean zerbitzari bat behar da, asteburuetan lan egiteko. Deitu: 616 28 62 13

Lokala salgai, ingurune paregabean. Negozioa martxan, nahi izanez gero. Lokal egokitu, komuna, kalefazioa eta lehio handiekin. Interesatuak deitu: 628 94 72 21

Etxebizitza salgai, Plaza Berrin. 3 logela, sala, sukalde eta komona. Iturain Agentzia. Deitu: 620 922471

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. 3 logela, 2 komuna, saloi-sukaldea eta terraza. Igogailoa akzesibla. Iturain Agentzia. Deitu: 620 922471

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Dietista Aurora Cid: dieta pertsonalizatuak. Depilazioa diodo laseraz. Masaje deportibo eta oin erreflexologia. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15.

**ALBERRO SAGARDOTEGIA**  
Tolare sagardotegia  
943 55 00 19

Sagardo naturala

Santa Barbara auzoa, 61  
HERNANI

Egun bakoitzeako sarrerak:

aldez aurretik  
**21€**  
bertan  
**24€**  
Bi egunetarako bonoa:  
**36€**

**MARTXOAK 16 21:30 etan**

**THE JAMES TAYLOR QUARTET**  
**THE BON SCOTT BAND**  
**LA INCONSCIENCIA DE UOHO**  
**SKALARIK DE LOREAN**

**MARTXOAK 17 21:00 etan**

**ZEI MAYS**  
**OBRINT PAS**  
**ATOM RHUMBA**  
**MANETA DE KAMIONETA + RAIMUNDO AMADOR**  
**JULIETA VENEGAS**

sarrerak salgai: goiz argi, garin, kixkal, aker, txili, depor, atxur, bodega, ekos, ape, zintzarri, zumitza

**SAGARRONDOTIK**  
[www.sagarrondotik.com](http://www.sagarrondotik.com)